

BERGARAKO UDALA
ELEKTRIZITATEKO ARDURADUN PLAZA
HAUTAKETA PROZESUAREN HASIERA.
BIGARREN ARIKETAREN DATA ALDAKETA

Hautaketa prozesuko oposizioaldiari dagokion fasea oposizioaldiko bigarren ariketarekin hasiko da.

Honela dio bigarren ariketak:

***"Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat: lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko probak.*

Hautagaiak lanpostuaren profil profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzeraz bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Probek elkarriketa ere izan dezakete.

Bigarren ariketa honi hogeita bost (25) puntu emango zaizkio gehienez, eta proba edo / eta ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren %50a eta guztira hamabi eta erdi (12,5) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko. Ariketaren informazioa proba egin aurretik emango da jakitera."

Ohar honen bidez honakoa jakinarazten da, arazo pertsonalak medio, azterketa data aldatu egin dela eta:

1.- Noiz izango da: **Urriaren 11n.**

Txandak egingo dira eta txanden zerrenda izangaien NANaren zenbakia aintzat hartu eta handienetik txikienera emango duen lehentasun-ordenan osatuko da. Izangai bakoitza deituko zaion ordutegian bertaratu beharko da.

Ordutegia eta egutegia web-orrian argitara emango da .

2.- Non: Udal Liburutegira (Errotalde jauregia) bertaratutako dira, argitaratuko den eguna eta ordua baino 10 minutu lehenago.

Bertaratzen ez direnak hautaketa-prozesutik baztertuak izango dira.

3.- Ariketaren/ariketen inguruko informazio osagarria gutxienez bi egun lehenago argitaratuko da Bergarako Udalaren web-orrian eta udalaren iragarki taulan.

Bergara, 2022ko irailaren 8a

Epaimahaiko idazkaria

